

IRAGARKIA

2022ko ekainaren 15ean Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen:

---“4. 2022/11 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-TRANSFERENTZIAK (OSASUN ETXEKO TEILATUA; ABELTZAINZAKO AZPIEGITURAK; FUTBOL-ZELAIKO KOMUNAK ETA OSTATUA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik kontu-hartzaitzak 2022ko ekainaren 10ean egindako txostenak adierazten duela indarrean dagoen aurrekontuko gastu-partida batzuetan ez dagoela kreditu nahikorik, eta, beraz, kredituak transferitzeko espediente bat onartu behar dela (2022/11 zk.). Aipatzen du ondoko hauek direla transferentzia behar duten gastu-partidak:

- 1-3121-62200. Kontsultategiko teilatua birmoldatzea. 9.292,80 €.
 - 1-4121-69200. Abeltzaintzako azpiegituren mantentze-lanak. 66.865,50 €.
 - 1-3423-60900. Aldagelak eta ostatua eraikitzea Matzadan. 3.617,90 €.
- Zenbatekoa, guztira: 79.776,20 €.

Kontuan izanda aipatu txostenean proposatzen duela haiek finantzatzea partida hauetako kreditutik eginiko transferentziarekin:

- 1-15100-64000. Udal plana aldatzea. 9.292,80 €.
 - 1-1612-60900. Fibrozementuzko arteriak ordeztzea hirigunean. 66.865,50 €.
 - 1-1710-64000. Azterketak/Aurreproiektuak. 3.617,90 €.
- Zenbatekoa, guztira: 79.776,20 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 216. eta 217. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 11. eta 9. Exekuzio Oinarriei jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022/11 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-transferentziak).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko

onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.”---

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2022-06-30.
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.